

# Kanalak

Dalton JG, soilik internet bidez eros daiteke. Salbuespen batzuk egongo dira non, bezeroak gurekin kontaktatzen badute, guk ahal izango genuke gerturatu harengana eta erakutsi zehazki hainbat modelo hark ikusteko nola sentitzen zaren harekin. Hasiera batean Euskal Herrian soilik salduko da, eta arrakasta izango balu Espainian eta internazionalki eskuragarri izango da.

Esan dugun bezala, gu pertsonalki joango garen tokiak izango da, adibidez, Eusko Jaurlaritzan, bertan proposatzeko gure intentzioa eta gure produktua erakusteko berriak eskoletan zabaltzeko.



[zz.wixsite.com/daltoncompany](http://zz.wixsite.com/daltoncompany)

Bezeroek gure produktuaren berri izateko hainbat sare sozialetan iragarkiak izango dira, bai eta mediku aldizkarietan ere. Bi mediku aldizkari hauetan erakutsiko dugu gure produktua: "New England Journal of Medicine" (NEJM) eta "American Journal Of Preventative Medicine". Bi hauetan jarriko ditugu medikuntzan espezializatuak daudelako eta NEJM espezifikoki bistaren ikerketan ikasten dutenak. Salud y Medicina aldizkarian ere erakutsiko dugu, lehenik lokalki saltzeko eta beste bi aldizkarietan bidez, internazionalki saltzeko beranduago.



Beste metodo on bat, gure produktua ezagutzeko izan daiteke, gure sare sozialetan, instagram-en, facebook-en eta twitter-en, igoko ditugun argazkiak eta egingo dugun publizitatea balioko digu mundu osoa ezagutzeko gure produktua. Hemen gure betaurreko diseinua eta koloreak erakutsiko ditugu argazkietan. Sare soziale hauek gehien erabilienak dira eta hauek lagungarriak izango dira, jendeak interesa izan dezan gure produktuetan eta marka hedatzeko.